ZIZURKILGO UDALA

**OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA**

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: **2014ko martxoaren 28a, astelehena**

Ordua: **18:30**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

**EGUNEKO AZTERGAIAK**

**1.- 2014ko MAIATZAREN 25ean IZANGO DIREN EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETARAKO HAUTESKUNDE-MAHAIAK OSATZEKO ZOZKETA.**

**2.- INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEKO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA ZIZURKILGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.**

**3.- EUSKO ALDERDI JELTZAILEAK EUSKO JAURLARITZAREN BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANARI BURUZ AURKEZTEN DUEN MOZIOA.**

**4.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkil, 2014ko apirilaren 16an.

Alkatea.

**CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO**

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **28 de Abril de 2.014, lunes**

Hora: **18:30**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

**ORDEN DEL DIA**

**1.- SORTEO PARA LA FORMACION DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO EUROPEO DEL 25 DE MAYO DE 2.014**

**2.- APROBACION DEL CONVENIO ENTRE EL DEPARTAMENTIO DE HACIENDA Y FINANZAS DE LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL, PARA LA CESION RECIPROCA DE INFORMACION.**

**3.- MOCION PRESENTADA POR EL PARTIDO NACIONALISTA VASCO EN RELACION AL PLAN DE PAZ Y CONVIVENCIA DEL GOBIERNO VASCO.**

**4.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 16 de Abril de 2.014

El Alcalde.

ZIZURKILGO UDALA - ALKATEGOA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

**2014ko APIRILAREN 28an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE PLENO ORDINARIO CELEBRADA EL DIA 28 DE ABRIL DE 2.014**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA / ALCALDE:**
José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**
Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)
Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)
Eva Usandizaga Mujika (Bildu)
Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**
José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita zortziko hemezortzi orduak eta hogeita hamar minutuak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Aritz Esnaola Arruti (Bildu), Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu), Aratz Alkorta Irazusta (Bildu) eta Mª Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintiocho de Abril de dos mil catorce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Aritz Esnaola Arruti (Bildu), Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu), Aratz Alkorta Irazusta (Bildu) y Mª Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.).

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- 2014ko MAIATZAREN 25ean IZANGO DIREN EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETARAKO HAUTESKUNDE-MAHAIAK OSATZEKO ZOZKETA.**

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako Mahaiak I Eranskinean aipatzen diren bezala osatuak gelditzen dira.

**1.- SORTEO PARA LA FORMACION DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO EUROPEO DEL 25 DE MAYO DE 2.014**

Se realiza el sorteo y las Mesas Electorales quedan formadas tal y como se recogen en el Anexo I de este Acta.

**2.- INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEKO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA ZIZURKILGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.**

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik.

Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalean (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

**2.- APROBACION DEL CONVENIO ENTRE EL DEPARTAMENTIO DE HACIENDA Y FINANZAS DE LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL, PARA LA CESION RECIPROCA DE INFORMACION.**

Se presenta para su aprobación el Convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información a suscribir entre el departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y este Ayuntamiento de Zizurkil.

Tanto el Departamento de Hacienda y Finanzas como los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa requieren establecer un sistema estable de intercambio de información para el desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias que tienen encomendadas.

En este sentido, la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos consagra el derecho de los ciudadanos a no aportar los datos y documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas, las cuales utilizarán medios electrónicos para recabar dicha información siempre que, en el caso de datos de carácter personal, se cuente con el consentimiento de los interesados en los términos establecidos por la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal (en adelante LOPD), o una norma con rango de Ley así lo determine, salvo que existan restricciones conforme a la normativa de aplicación a los datos y documentos recabados.

En consonancia con dicho principio atribuye a cada Administración la obligación de facilitar el acceso de las restantes administraciones públicas a los datos relativos a los interesados que obren en su poder y se encuentren en soporte electrónico, especificando las condiciones, protocolos y criterios funcionales o técnicos necesarios para acceder a dichos datos con las máximas garantías de seguridad, integridad y disponibilidad, de conformidad con lo dispuesto en la citada LOPD y según los requisitos establecidos por el Esquema Nacional de Seguridad (ENS) y el Esquema Nacional de Interoperabilidad (ENI).

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikuluak honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari dela:

*"1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestorak barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babesa eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.*

*……………………….*

*5. Aurreko artikuluan, artikulu honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik beharko. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikuluaren 1 apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko."*

Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikuluak honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

*"1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariek izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:*

*……………………….*

Por otro lado, el artículo 91 de la Norma Foral General Tributaria establece en lo que se refiere a la obtención de datos por parte de la administración tributaria:

*"1. Las autoridades, cualquiera que sea su naturaleza, los titulares de los órganos de los Territorios Históricos, de las Comunidades Autónomas, del Estado y de las Entidades Locales; los organismos autónomos y las entidades públicas empresariales; las cámaras y corporaciones, colegios y asociaciones profesionales; las mutualidades de previsión social; las demás entidades públicas, incluidas las gestoras de la Seguridad Social y quienes, en general, ejerzan funciones públicas, estarán obligados a suministrar a la Administración tributaria cuantos datos, informes y antecedentes con trascendencia tributaria recabe ésta mediante disposiciones de carácter general o a través de requerimientos concretos, y a prestarle, a ella y a sus agentes, apoyo, concurso, auxilio y protección para el ejercicio de sus funciones.*

*……………………….*

*5. La cesión de datos de carácter personal que se deba efectuar a la Administración tributaria conforme a lo dispuesto en el artículo anterior, en los apartados anteriores de este artículo o en otra norma de rango legal, no requerirá el consentimiento del afectado. En este ámbito no será de aplicación lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 21 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. "*

A su vez, el artículo 92 de la Norma Foral General Tributaria establece en lo que se refiere a la cesión de datos tributarios:

*"1. Los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones tienen carácter reservado y sólo podrán ser utilizados para la efectiva aplicación de los tributos o recursos cuya gestión tenga encomendada y para la imposición de las sanciones que procedan, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo que la cesión tenga por objeto:*

*……………………….*

*b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.*

*………………………*

*b) La colaboración con otras Administraciones tributarias a efectos del cumplimiento de obligaciones fiscales en el ámbito de sus competencias.*

*…………………*

*d) Beste edozein herri administraziorekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.*

*………………………*

*La colaboración con las Administraciones públicas para la lucha contra el delito fiscal y contra el fraude en la obtención o percepción de ayudas o subvenciones a cargo de fondos públicos o de la Unión Europea.*

*………………….*

*j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.*

*………………………*

*La colaboración con órganos o entidades de derecho público encargados de la recaudación de recursos públicos no tributarios para la correcta identificación de los obligados al pago.*

*………………..*

*l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.*

*l) La colaboración con las Administraciones públicas y demás entidades que integran el sector público para el desarrollo de sus funciones, previa autorización de los obligados tributarios a que se refieran los datos suministrados.*

*m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.*

*……………………… .”*

*m) La colaboración con las Administraciones Públicas territoriales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la recaudación de los ingresos de derecho público de su competencia.*

*……………………….”*

Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak, informazioa emateko lankidetza hitzarmen eredua, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

De acuerdo con lo anterior, por Orden Foral 148/2014, de 24 de febrero de 2014, se aprobó el modelo de convenio de colaboración en materia de cesión de información, a suscribir entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, Plenoak, Zerga Politiaka eta Sozioekomoniako batzorde Informatzailearen proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Hitzarmena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

Considerando lo expuesto, el Pleno, a propuesta de la Comisión Informativa de Política de Impuestos y Socioeconomía y previa deliberación, realiza la votación para la aprobación del Convenio, con el siguiente resultado.

- Alde: 5 (5 Bildurenak).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez honako hau erabaki du:

Lehena.- Informazioa emateko lankidetza hitzarmena sinatzea, 2014ko otsailaren 24an emandako 148/2014 Foru Agindu bidez onartutako ereduari jarraiki, bere A1, A-2, A-3 eta A-4 eranskinekin batera.

Bigarrena.- Alkate-Lehendakariari jaunari ahalmena ematea aipatu Hitzarmena Zizurkilgo Udalaren izenean eta ordezkaritzan sina dezan.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, Alkate-Lehendakari jaunak sinatuta.

- Votos a favor: 5 (5 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Suscribir el Convenio de colaboración en materia de cesión de información, aprobado por la Orden Foral 148/2014, de 24 de febrero de 2014 junto con los anexos A-1, A-2, A-3 y A-4.

Segundo.- Facultar al Señor Alcalde-Presidente para suscribir dicho Convenio, en nombre y representación del Ayuntamiento de Zizurkil

Tercero.- Comunicar al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa este acuerdo, mediante la certificación expedida del mismo, y remitir además el convenio suscrito por el Señor Alcalde-Presidente de la Corporación, por duplicado ejemplar.

**3.- EUSKO ALDERDI JELTZAILEAK EUSKO JAURLARITZAREN BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANARI BURUZ AURKEZTEN DUEN MOZIOA.**

Akta honen II. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren aurkeztutako proposamena onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 0.
- Aurka: 5 (5 Bildurenak).
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, aurkeztutako Mozioa errefusatzea erabaki du:

Bilduk jakinarazi du kontrako botoa eman duela, Bake eta Bizikidetza Plan hau ez delako alderdi guztien artean adostutakoa izan, eta proposatu du udal-batzorde bat osatzea, alderdi guztien artean antzeko plan bat egiteko, baina denen artean adostuta.

**3.- MOCION PRESENTADA POR EL PARTIDO NACIONALISTA VASCO EN RELACION AL PLAN DE PAZ Y CONVIVENCIA DEL GOBIERNO VASCO.**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 0.
- Votos en contra: 5 (5 de Bildu).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda rechazar la Moción presentada.

Bildu comunica que su voto en contra se debe a que este Plan de Paz y Convivencia no ha sido consensuado entre todos los partidos y propone que se cree una comisión municipal para que entre todos los partidos se puede llevar adelante un plan similar, pero consensuado entre todos.

ZIZURKILGO UDALA

Beste aztergairik gabe, eta hemezortzi orduak eta berrogeita hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las dieciocho horas y cincuenta y cinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

**O.I.**
**ALKATEA.**

**Vº Bº**
**EL ALCALDE.**

ZIZURKILGO UDALA
- ALKATEGOA -

ZIZURKILGO UDALA

**I ERANSKINA**

**2014ko MAIATZAREN 25eko EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako Mahaiak honela osatu dira:

**ANEXO I**

**SORTEO PARA LA FORMACION DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO EUROPEO DEL 25 DE MAYO DE 2.014**

Se realiza el sorteo y la formación de las Mesas Electorales resulta como sigue:

| **1 - A MAHAIEKO KARGUAK<br>CARGO MESA 1 - A** | **HAUTESLEA<br>ELECTOR** |
|---|---|
| | |
| **Lehendakaria /Presidente** | **ITURBE IRAOLA, Maria José** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | ALTUNA ERAUSQUIN, Milagros |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | DE LA IGLESIA MUÑOA, José Antonio |
| **1. Mahaikidea / 1er. Vocal** | **INTXAURRONDO OTERMIN, José María** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | GARMENDIA CALLEJA, Idoia |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | ITURBE ARRUTI, Juan José |
| **2. Mahaikidea / 2º Vocal** | **GALLEGO GARCIA, Tomás** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | ARBURUA ALZUYET, Juan Félix |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | HERRERA FERNANDEZ, José María |

| **1 - B MAHAIEKO KARGUAK<br>CARGO MESA 1 - B** | **HAUTESLEA<br>ELECTOR** |
|---|---|
| | |
| **Lehendakaria /Presidente** | **LIZASO PEREZ, Iñaki** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | LOPEZ UGARTEMENDIA, Aitor |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | RONDA PASCUAL, José Ramón |
| **1. Mahaikidea / 1er. Vocal** | **VELASCO MOREIRA, José Antonio** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | URCOLA SAIZAR, María Isabel |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | LERENA RUIZ, Nuria |
| **2. Mahaikidea / 2º Vocal** | **SANCHEZ ARRUABARRENA, Javier** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | TAPIA VILLAJOS, Imanol |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | LAZCANO ECHEVERRIA, Ana Belén |

| **2 MAHAIEKO KARGUAK<br>CARGO MESA 2** | **HAUTESLEA<br>ELECTOR** |
|---|---|
| | |
| **Lehendakaria /Presidente** | **AGUIRREGOMEZCORTA SALEGI, Ana** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | GALAN DE LA NAVA, Maitane |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | ECHEVERRIA ERQUICIA, Iñaki |
| **1. Mahaikidea / 1er. Vocal** | **ARRUABARRENA ESPIN, Iosu** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | CABALLERO SANCHEZ, Luis Miguel |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | LACARRA ESCORZA, Francisco Javier |
| **2. Mahaikidea / 2º Vocal** | **LUCAS MARCOS, Manuel** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | INCHAUSTI OLAZABAL, María Rosario |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | URRUZOLA ZURIARRAIN, Iker |

ZIZURKILGO UDALA

ZIZURKILGO UDALA

2014 [illegible] 27

SARRERER ERREGISTROA

80

# II ERANSKINA – ANEXO II

EUSKO ALDERDI JELTZALEAK ZIZURKILGO UDALEKO OSOKO BILKURAN EUSKO JAURLARITZAREN BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANARI BURUZ AURKEZTEN DUEN MOZIOA.

Giza eskubideen urraketaren gaia, Eusko Alderdi Jeltzalearen kudeaketan bereziki sentibera izan da Zizurkilgo udalean.

2008ko maiatzean, onartu zen jada mozio bat non, biktima guztien oroitzapenez antolatzeko balizko ekintzak kontutan hartuko lituzkeen, batzorde bat osatzearen beharra jasotzen zuen.

Mozio horrek esaten zuen "ETAk sortutako biolentziak, ez luke inondik inora, beste biolentzia politikoak arrazoitzeko edo estaltzeko izan behar, herri honetako herritarren aurka zigorgabe erabili izan diren tortura eta gerra zikinaren hainbat ekintza, adibidez".

"Biktima batzuen memoriaren errespetuak ez du inola ere zalantzan jarri behar edo murriztu behar, beste batzuek, egiarako, justiziarako eta jasan behar izan dituzten eskubide urraketa larrien erreparaziorako daukaten eskubidea", ere esaten zuen.

Hala ere, ez ditugu ahazten Zizurkilgo herritarrengan ETAk burutu dituen giza eskubide urraketak. Gure herriko hainbat arlotatik gutxiesten saiatu diren biolentzia.

Euskal gizartearen berrelkartzeak, orokorrean eta Zizurkildarrenak bereziki, eskatzen du, aldi berean eta bateratuak eman daitezela, biolentzia guztiekiko hausnarketa eta biktima guztiek egiarako, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidea.

Zizurkilgo EAJren udal taldeak, Bakea eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez Eusko Jaurlaritzak berriki aurkeztu duen, **2013-2016, Bakea eta Bizikidetza Plana esperantzaz hartu du.**

Plan hau, bere metodologia eta hainbat ekimenen eskutik, gure gizartearen berrelkartzea errazteko dinamikak sortzeko, marko egokia izango da.

Horregatik, Zizurkilgo EAJren udal taldeak, Eusko Jaurlaritzaren Bakea eta Elkarbizitzarako Idazkaritza Nagusiari dei egiten dio:

ZiZURKIL herria, 2013-2016 Bakea eta bizikidetza Planean sar dezan.

Mª ANGELES LAZKANO

ZIZURKIL 27 de ENERO 2014

ZIZURKILGO UDALA
2014 ... 27
SARRERREN ERREGISTROA
Zenbakia 80

# MOCION QUE PRESENTA EL GRUPO MUNICIPAL DEL PARTIDO NACIONALISTA VASCO AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL EN RELACION AL PLAN DE PAZ Y CONVIVENCIA DEL GOBIERNO VASCO.

ZIZURKILGO UDALA

La vulneración de los Derechos Humanos ha sido un tema especialmente sensible en la gestión del Partido Nacionalista Vasco en el Ayuntamiento de Zizurkil.

En mayo de 2008 ya se aprobó una moción en la que se planteaba la necesidad de la creación de una comisión que estudiase posibles actuaciones en memoria de todas las víctimas.

Dicha moción decía "que la violencia generada por ETA no debería en ningun caso ni justificar, ni ocultar otras violencias de carácter político, como actos de guerra sucia o torturas, que se han venido practicando de manera impune contra ciudadanos de este pais."

También decía que "el respeto a la memoria de unas víctimas no puede en ningún caso poner en tela de juicio ni rebajar el derecho de otras personas a la verdad, justicia y reparación por la vulneración grave de derechos a los que han podido ser sometidas".

No obstante lo anterior, no olvidamos la vulneración de Derechos Humanos que ETA ha ejercido sobre ciudadanos de Zizurkil .Violencia que se ha intentado minimizar desde determinados sectores de nuestro municipio.

El reencuentro de la sociedad vasca en general y de la zizurkildarra en particular, reclama una reflexión simultánea y conjunta de todas las formas de violencia así como el derecho de todas las victimas a la verdad, justicia y reparación.

El Grupo Municipal del EAJ-PNV de Zizurkil saluda con esperanza la iniciativa del Gobierno Vasco a través de la Secretaria General para la Paz y la Convivencia, cuyo **Plan para la Paz y la Convivencia 2013-2016**, ha sido presentado recientemente.

Este Plan, a través de su metodología y de sus diversas iniciativas, está llamado a ser el marco idóneo para la generación de dinámicas que faciliten el proceso de reencuentro de nuestra sociedad. Por ello , el Grupo Municipal del EAJ-PNV de Zizurkil insta a la Secretaría General para la Paz y la Convivencia del Gobierno Vasco a que:

Incluya al municipo de ZIZURKIL en el Plan de Paz y Conviencia 2013-2016.

Mª Angeles Lazkano

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

Zizurkil 27 de Enero 2014